

## EUSKARA LITURGIAN

*Hendaiaiko Udaletxea, 2002-IX-27*

*Mikel Erramouspé*

### **I. Ikerketa nola eramana izan den**

J. Camino Baionako diosesako bikario jeneralaren arrangura zen 2001. urte honetan jakitea zertan zen euskara elizkizunetan. Euskarak badu segur aipaldi denbora hauetan: batzuek diote gibelerat ari dela, besteek, aldiz, aintzina ari dela. Eta elizan zer leku ote du?

Leku hori ttipituz, haundituz ari da? Lekuaz bestalde zer erran nahi emaiten diogu? Komunikabide baten lerroan ote da ala elizak ba ote ditu bere arrazoinak euskarari, frantsesari edo elebiduntasanari honelako edo halako inportantziaren emateko?

Zinodak zerbait erran bazuen ere, hortaz gogoeta funtsezkorik egin ote zen ondotik? Ala bakotxak (apez bakotxak) bere alde bereari segitu ote du?

Galde horiek guziak gogoan bildu ginen beraz eta deliberatu zen lehen lehenik behar zela ahal bezain argi ikertu zertan zen euskararen lekua bederen elizkizunetan.

Horretako Euskal Herriko eliza guzietan iragaiten diren mezak zoin hizkuntzatan diren bai hitza, otoitza eta kantu ikertu izan da.

J. Caminok muntatu du talde bat horren egiteko: Gaxuxa Eppherre, Anne Marie Etcheverry, Graxi Zolorzano, Maité Deliart, Katty Itzaina, Adolphe Antchordoquy, Marzel Recalde, Peio Jorajuria, Mikel Erramouspé eta beste zazpi apez. Bakotxak parrophia bat edo bi ikertu ditu galdeginez zer elizkizun zer mintzairatan egiten den jakiteko eta denbora berean ahalaz jakiteko nola egiten zuten mintzaira horien antolatzeke.

### **II. Emaitzak**

Mapa batean eman ditugu emaitzak. 3 kasu berexi ditugu. Parrophia batean igandeko meza bat bederen osoki euskaraz bazelarik, kolore xuritan ager-

tu dugu mapan. Meza elebidun bat bederen badelarik ttitta beltzak agertzen dira. Euskarak ez duelarik tokirik, ordion beltzez agertzen da.

– Meza elebiduna da, hitzaren parte bat euskaraz delarik. Euskarazko kantuek ez dute meza euskalduntzen.

1. Batzuek euskara eta frantsesa mintzairen uztartze hori traba bat bezala bizi dute kristau elkartearantzat. Batasuna hausten duela eta elgar baztertze bat sortzen duela pentsatzen dute. Liturgia denek behar dute ulertu. Beraz, frantsesa behar da baliatu erdaldun bat edo beste agertzen delarik, diote hauek. Beraz, hemen lehentasuna ematen zaio gehiengoari eta honen izenean batasunari.

Beste batzuek diote ez dutela jendeak galdegiten baitezpada euskara. Berdin zaiela. Beraz, ez dute baitezpada ikusten zer egin behar liteken euskaraz. Liturgiaren folklorizatzea dela ere agertu da euskara galduxea den lekuetan. Euskara mezan sartzeak «bitxi» egiten du, artifiziala, ez serioa. Edo zahar-keria bat: aitatxi-amatxien orroitzapen goxo bat. Hori ote da Ebanjelioaren zabalteko molderik hobereena?

Erran ez direnak, baina entzunak izan direnak inkesta honetaz bestalde: euskara liturgian politika baten egitea da. Elizak ez du euskararen alde agertzerik, ez dela hau honen egitekoa. Ez ote du elizak aise amor ematen errabiatu batzuen aintzinean?, diote batzuek! Frantzian izanez geroz, euskarazko mezarik ez da behar.

2. Beste apez batzuek diote zer traba kausitzen duten euskararen atxikitze-ko:

Oraingo pastoral kontseiluetan, kanpotik jin erdaldun frango bada eta harro-harro mintzo direnak! Euskaldunak uzkurrago agertzen dira eta hauen eraginez euskarak gibelerat egiten du. Laiko euskaldunek diote borroka gogorra behar dela eraman apezaren sustengatzeko eta laguntzeko sail horretan.

Parrokia batzuetan laiko euskaldunak hor dira, baina beste batzuetan kanpotiarrek gaina hartua dukete.

Beraz, ez da errax apez batentzat nehoen sustengua gabe euskararen alde irautea.

3. Beste leku batzuetan iduri du gauzak lanoki pasatzen direla, ez baitezpada ez delakotz problemarik, baina iduri du gauzak antolatua izan direla eta ontsa esplikatua. Hemen apaizaren nortasunak ainitz egiten duela ez da dudarik. Ez da baitezpada aldekoa edo kontrakoa historio bat baina gehiago indar bat egin delakotz gauzak diren bezala ikusteko, ikertzeko eta erantzun orekatu baten xutik emaiteko. Eztabaidak badira. Batzuetan nork edo nork igortzen du letra bat dena gatz eta biper, baina gehienak ez jakinean ez baitezpada gaxtakeriaz. Elkarritzeta (ez beti) baina gehienetan baikorra da eta aterabide bat aurkitzen da.

4. Azkenik, badira minbera direnak: Elizak ele ederrak erabiltzen ditu /baina gero ez dira obratuak. Elizak (apezpikuak?) ez duela deus egiten bere erabakien segitzeko... Euskaltzaleak okaztatuak daude eta gisa guztiz ez dira gehiago elizan ibiltzen, diote batzuek. Beste sinestetan barna eta engaiamenduetan dabilta edo ixil-ixila badoazi ... neherekin samurto gabe.

### III. Gogoetak

Funtsezko gogoeta berritu baten beharra senditzen da. Bide batzu agertu (jadanik egiten direnak argian emanez) eta bide berriak ikertu:

- komunikazione beharra: poblema diren lekuetan ageri da komunikazione eta gogoeta eskasa. Berdin-berdina problemarik ez den lekuetan ohartzen gira apaizak edo pastoral kontseiluak indar haundia egin duela esplikatzeko edo gauzak behar bezala antolatzeko, hala nola mezako orrian irakurgai guztiak bi mintzairetan agertuz. Jenderi esplikatuz zendako den meza bat euskaraz edo parte bat...
- gogoeta beharra; batek erran duen bezala, pasterala euskaraz ala euskararen pasterala. Ikusiz euskaltzale mundua karraskan elizarenganik urruntzen ari dela. Apez gazterik ez da gehiago euskaldunik. Zendako ez eman hauei urte bat euskararen ikasteko. Hauentzat on liteke eta AEKarentzat ere!
- Ikertu ere Hegoaldeko kristau elkarteek nola egiten duten euskalduntze hori.
- Inkestek erakusten dute jendea ez dela oro har euskararen kontra. Gainera honen erabilpena gune sinbolikoan kokatzen dute gaztetxoek partikulazki. Hortaz bi gogoeta egin behar genituzke dudarik gabe.
- Teologia erreberitu bat behar genuke landu partikulazki misionest ditugun euskaldunak lagun. Europaz bestalde badira segur kristauak eta hauen ikusmoldeak ere behar genituzke hartu kulturen eta Ebanjelioaren arteko harreman horien barnatzeko.

Gogoeta horien guzien eramaiteko Fedea eta Kultura taldea berriz muntatu da eta berriki arrapiztu den Fededunak taldearekin lan bat eramaiten dute agian fruitu onak ekarriko dituenak.